



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**INGURUMENAREN ETA LURRALDE POLITIKAREN BATZORDEA
COMISIÓN DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL**

Honekin batera bidaltzen dizut hidrokarbu ez-konbentzionalak erazteko prozesuan eta haustura hidrauliko edo *fracking*ean ingurumena babesteko neurri osagarriei buruzko lege-proposamena aztertzeko Ingurumenaren eta Lurralde Politikaren Batzordean sortutako lantaldeak prestatutako txostena.

**Eusko Legebiltzarra, 2015eko
ekainaren 18a**

Se adjunta informe elaborado por la ponencia constituida en el seno de la Comisión de Medio Ambiente y Política Territorial para el estudio de la proposición de ley de medidas adicionales de protección medioambiental para la extracción de hidrocarburos no convencionales y la fractura hidráulica o *fracking*.

**Parlamento Vasco, 18 de junio de
2015**

**Alberto Figuroa Laraudogoitia
Legelaria / Letrado**





**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**INGURUMENAREN ETA LURRALDE POLITIKAREN
BATZORDEA
COMISIÓN DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL**

**INGURUMENAREN ETA LURRALDE POLITIKAREN
BATZORDEARI**

TXOSTENA, HIDROKARBURO EZ-KONBENTZIONALAK ERAUZTEKO PROZESUAN ETA HAUSTURA HIDRAULIKO EDO *FRACKING*GEAN INGURUMENA BABESTEKO NEURRI OSAGARRIEI BURUZKO LEGE-PROPOSAMENAREN GAINEAN

Lantaldea eratu zen hidrokarbuero ez-konbentzionalak erauzteko prozesuan eta haustura hidrauliko edo *fracking*ean ingurumena babesteko neurri osagarriei buruzko lege-proposamenaren gaineko txostena egiteko.

Lantaldea 2015eko ekainaren 10ean eta 17an bildu da, eta egindako bileretan legebiltzarkide titular hauek izan dira: Javier Carro Iglesias (EA-NV), Daniel Maeztu Perez (EH Bildu) eta Gorka Maneiro Labayen (UPyD) jaunak, Natalia Rojo Solana (SV-ES) eta M.^o del Carmen López de Ocariz López de Munain (PV-ETP) andreak eta, ordeko izendaturik, Norberto Aldaiturriaga Zorrozueta (EA-NV) legebiltzarkidea ere izan da.

Marian Beitialarrangoitia Lizarralde batzordeburua ere joan da bilkuretara.

Legebiltzarraren Erregelamenduko 138. artikuluan adierazitakoa betetzeko, Ingurumenaren eta Lurralde Politikaren Batzordeari aurkezten dio ondoko

TXOSTENA

I.- ZUZENKETEN EZTABAIDA

- Zioen azalpena: Ez dira onartu: 1 (Mistoa-UPyD) eta 26 eta 27 (EA-NV).
- 1. artikulua. Ez da onartu: 19 (EA-NV).
- 2. artikulua. Zuzenketarik gabe.
- 3. artikulua. Batera erdibidetu dira 4. artikulua-rekiko 15 (EH Bildu) eta 13 (SV-ES) zuzenketak. Ez dira onartu: 2 (Mistoa-UPyD) eta 20 (EA-NV). Erretiratu da: 12 (SV-ES).

Hona hemen proposatutako testua:

"Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 28. artikulua aldatzen da, 7. puntu berri bat sortuz, hurrengo testuarekin:

A LA COMISIÓN DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL

INFORME DE LA PROPOSICIÓN DE LEY DE MEDIDAS ADICIONALES DE PROTECCIÓN MEDIOAMBIENTAL PARA LA EXTRACCIÓN DE HIDROCARBUROS NO CONVENCIONALES Y LA FRACTURA HIDRÁULICA O *FRACKING*

La ponencia encargada de redactar el informe relativo a la proposición de ley de medidas adicionales de protección medioambiental para la extracción de hidrocarburos no convencionales y la fractura hidráulica o *fracking*, se ha reunido los días 10 y 17 de junio de 2015.

A las sesiones han acudido los parlamentarios y parlamentarias designados como titulares, señores Javier Carro Iglesias, Daniel Maeztu Perez (EH Bildu) y Gorka Maneiro Labayen (UPyD), señoras Natalia Rojo Solana (SV-ES) y M.^o del Carmen López de Ocariz López de Munain (PV-ETP) y el parlamentario nombrado suplente, señor Norberto Aldaiturriaga Zorrozueta (EA-NV).

A la sesiones también ha acudido la presidenta de la comisión Marian Beitialarrangoitia Lizarralde.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 138 del Reglamento de la Cámara, la ponencia eleva a la Comisión de Medio Ambiente y Política Territorial el siguiente

INFORME

I.- DEBATE DE LAS ENMIENDAS

- Exposición de motivos. No se asumen: 1 (Mixto-UPyD) y 26 y 27 (EA-NV)
- Artículo 1. No se asume: 19 (EA-NV).
- Artículo 2. Sin enmiendas.
- Artículo 3. Se transan conjuntamente las enmiendas 15 (EH Bildu) y 13 (SV-ES), al artículo 4. No se asumen: 2 (Mixto-UPyD) y 20 (EA-NV). Se retira: 12 (SV-ES).

El texto propuesto es el siguiente:

"Se modifica el artículo 28 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, creando un nuevo punto 7 con el siguiente texto:





Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dauden lur-eremuetan, hidrokarburoen aprobetxamenduaren kasuan, ez dago baimenduta haustura hidraulikoaren teknologia, inguruko ezaugarri geologikoei, ingurumenari, paisaiari edo baldintza sozioekonomikoei kalte egin badiezaieke, edota Eusko Jaurlaritzaren beste eskumen-eremu batzuei dagokienez, lurralde-antolaketaren, hirigintza-antolaketaren edo/eta ingurumen-antolaketaren bitartekoetan jasota dagoenaren arabera".

- 3. artikulua (berria). Ez da onartu: 4 (Mistoa-UPyD).
- 4. artikulua. 16 zuzenketaren (EH Bildu) lehen zerbakia onartu da, eta 4. artikulua bihurtzen da. Erdibidetu da: 13 (SV-ES) (3. artikuluan ere erdibidetua). Ez dira onartu: 3 (Mistoa-UPyD) eta 21 (EA-NV).
- 4. artikulua (berria). Ez da onartu: 5 (Mistoa-UPyD).
4 bis artikulua. Onartu da: 17 (EH Bildu) (gehiketa moduan onartu da, puntu eta jarrai, Uraren 1/2006 Legeko oraingo 29.1 artikulua-aren amaieratik aurrera).
- 5. artikulua (berria). Ez da onartu: 6 (Mistoa-UPyD).
- 6. artikulua (berria). Ez da onartu: 7 (Mistoa-UPyD).
- 7. artikulua (berria). Ez da onartu: 8 (Mistoa-UPyD).
- 5. artikulua. Ez da onartu: 22 (EA-NV).
- Xedapen gehigarriak (berriak). Ez dira onartu: 10 eta 11 (Mistoa-UPyD) eta 24 (EA-NV).
- Xedapen iragankorra. Onartu dira: 14 (SV-ES) lehenengo xedapen iragankor moduan (zuzenketa tekniko batekin), 18 (EH Bildu), bigarren xedapen iragankor moduan. Ez da onartu: 9 (Mistoa-UPyD). Bertan behera: 23 (EA-NV), ezetsi diren aurreko beste zuzenketa batzuen ondorioz.
- Xedapen indargabetzailea. Zuzenketarik gabe.
- Azken xedapena. Zuzenketarik gabe.

En terrenos clasificados como suelo no urbanizable, en el caso de aprovechamiento de hidrocarburos, no está permitida la tecnología de la fractura hidráulica, cuando pueda tener efectos negativos sobre las características geológicas, ambientales, paisajísticas o socioeconómicas de la zona, o en relación con otros ámbitos competenciales de la Comunidad Autónoma vasca, en función de lo que establezcan los instrumentos de ordenación territorial, urbanística y/o ambiental".

- Artículo 3 (nuevo). No se asume: 4 (Mixto-UPyD).
- Artículo 4. Se asume el primer párrafo de la enmienda 16 (EH Bildu) que se convierte en el artículo 4. Se transa: 13 (SV-ES) (transada en el artículo 3). No se asumen: 3 (Mixto-UPyD) y 21 (EA-NV).
- Artículo 4 (nuevo). No se asume: 5 (Mixto-UPyD).
- Artículo 4 bis. Se asume: 17 (EH Bildu) (se asume como una adición, punto y seguido, a partir de la finalización del artículo 29.1 actual de la Ley 1/2006, de Aguas).
- Artículo 5 (nuevo). No se asume: 6 (Mixto-UPyD).
- Artículo 6 (nuevo). No se asume: 7 (Mixto-UPyD).
- Artículo 7 (nuevo). No se asume: 8 (Mixto-UPyD).
- Artículo 5. No se asume: 22 (EA-NV).
- Disposiciones adicionales nuevas. No se asumen: 10 y 11 (Mixto-UPyD) y 24 (EA-NV).
- Disposición transitoria. Se asumen: 14 (SV-ES) como disposición transitoria primera (con una corrección técnica), 18 (EH Bildu), como disposición transitoria segunda. No se asume: 9 (Mixto-UPyD). Decae: 23 (EA-NV), como consecuencia de otras enmiendas anteriores rechazadas.
- Disposición derogatoria. Sin enmiendas.
- Disposición final. Sin enmiendas.





- Bigarren azken xedapena (berria). Bertan behera: 25 (EA-NV), ezetsi diren aurreko beste zuzenketa batzuen ondorioz.

Txertatu dira itzulpen-zerbitzuak proposatutako aldaketa gramatikalak.

II. PROPOSATUTAKO TESTUA

Lantaldeak ondorengo testu hau proposatzen dio batzordeari:

Lege-proposamena, hidrokarburu ez-konbentzionalak erazteko prozesuan eta haustura hidrauliko edo *fracking*ean ingurumena babesteko neurri osagarri buruzkoa.

ZIOEN AZALPENA

Energiaren erabilera funtsezkoa da edozein gizarterentzat. Gizarte guztiek eman dute beren denboraren, ahaleginaren eta baliabideen parte bat bizirik irauteko beharrezkoa duten energiaren bila. Tradizionalki batez ere energia berriztagarriak erabili izan badira ere (biomasa, haizea, ura), azken bi mendeetan zehar egoera zeharo aldatu da. Industria-iraultzaren ondotik izan zen erregai fosilen erabilera masiboak, lehenik ikatz minerala eta ondoren petrolio eta gas naturala ustiatzeak, guztiz bestelako gizarte bati ireki zizkion ateak. Baliabide horien erabilgarritasun handiak, aurrekari historikorik gabeko jauzi kualitatiboa bat erraztu zuen energiaren erabileran. Eta energiaren erabileraren emendio nabarmen horren eskutik bestelako aspektu batzuen hazkundea ere etorri zen, besteak beste, mugikortasunerako gaitasunean edota salgai eta elikagaien ekoizpenean. Gurea bezalako gizarte industrializatu batek energia kantitate handiak eskatzen ditu.

Hala ere, gaur egun gehien erabiltzen diren energia primarioen iturriak (ikatz, petrolio eta gas naturala) ez dira energia berriztagarriak, hau da, energia-iturri mugatuak dira. Eta, zenbaitetan, petrolioaren kasuan esaterako, jakina da ekoizpenaren gailur edo zeniterra jada iritsiak garela, nazioarteko zenbait agenzia onartu izan duten bezala. Izaera mugatuko gaineko erregaiekin ere, eta uranioa ere haien artean dago, gauza bera gertatuko da denboraldi labur batean.

Baliabide mota horiek erazten jarduten duten enpresek ederki asko ezagutzen dute egoera hori, eta ohiko hobiak agortze bidean direla adierazten duten zantzen aurrean, ez-konbentzionaltzat hartzen diren hobietan ari dira bilatzen erregai fosilak. Testuinguru horretan ulertu behar ditugu, adibidez, ikatza mendi

- Disposición final segunda (nueva). Decae: 25 (EA-NV), como consecuencia de otras enmiendas anteriores rechazadas.

Se incorporan las modificaciones gramaticales propuestas por el servicio de traducciones.

II.- TEXTO PROPUESTO

La ponencia propone a la comisión el siguiente texto:

Proposición de ley de medidas adicionales de protección medioambiental para la extracción de hidrocarburos no convencionales y la fractura hidráulica o *fracking*.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El uso de la energía es consustancial a cualquier sociedad humana. Todas las sociedades han dedicado una parte de su tiempo, esfuerzo y recursos a obtener la energía necesaria para su funcionamiento. Si bien tradicionalmente se ha utilizado prioritariamente energía proveniente de recursos renovables (biomasa, viento, agua), la situación ha cambiado mucho en los dos últimos siglos. La utilización masiva de combustibles fósiles a partir de la revolución industrial, primero con el carbón mineral y después con el petróleo y el gas natural, dio paso a una sociedad muy diferente. La gran disponibilidad de estos recursos facilitó un salto cuantitativo sin precedentes históricos en el uso de la energía. Y este importante aumento de utilización de energía ha tenido un correlato de crecimiento en muchos otros aspectos, como en la movilidad o en la capacidad de producción de mercancías y alimentos, por poner unos ejemplos. Una sociedad industrializada como la nuestra requiere enormes cantidades de energía.

Sin embargo, las fuentes de energía primaria más utilizadas en la actualidad (carbón, petróleo y gas natural) no son recursos renovables, es decir, son fuentes energéticas finitas. Y en algunos casos, como en el petróleo convencional, se puede observar que el cenit o pico de producción ya ha sido alcanzado, como han reconocido diferentes agencias internacionales. Con el resto de combustibles de carácter finito, entre los que también se encuentra el uranio, pasará lo mismo en un breve periodo de tiempo.

Las empresas dedicadas a la extracción de estos recursos conocen perfectamente esta situación, y ante la evidencia de que los yacimientos tradicionales están llegando a sus límites, buscan combustibles fósiles en yacimientos considerados no convencionales. En este contexto debemos inscribir, por ejemplo, la





gailurrak harrotuz eraztea, petrolioia harea bitumino-soetatik eraztea, edota gasaren eta petrolioaren us-tiapena haustura hidraulikoaren (*fracking*) bitartez egitea.

Teknika eta operazio horiek, orokorrean hartuta, zenbait ezaugarri komun dituzte:

- Eskatzen duten energia input-a teknika konbentzionalena baino askoz ere handiagoa da, eta, beraz, errentagarritasun energetikoa nabarmen baxuagoa da.
- Eratzketa-operazioetan baliabide natural gehiagoren erabilera eskatzen dute.
- Lurraren okupazio eta erabilera handiagoa behar izaten duten teknikak dira.
- Eta, batez ere, teknika horiek komun dutena da ingurumenarentzako askoz ere bortitza goak direla.

Teknika horien erabileraren ondorioz, ezartzen diren lekuetan ingurumen- eta gizarte-gatazka ugari sortzen dira.

*Fracking*aren kasua adibide ezin hobea da. Haustura hidrauliko modernoa presio altuak erabiliz lur-azpian jariatzen kopuru handiak injektatzen datza. Modu horretan, iragazkortasun artifiziala sortzen da eta sakoneko arroka-zainen hedadura osoan zehar harrapatuta eta barreiatuta dauden hidrokarburok askatu eta gainazalerako bidea ahalbidetzen zaie. Teknika horrek aurreko mendeko 80. eta 90.eko hamarkadetan jasandako garapen teknologikoak posible egin du gas natural eta petrolio ez-konbentzionalaren us-tiapena AEBetan eta Kanadan. Hala ere, XXI. mendeko lehen hamarkadan *fracking*ak jasandako garapen horrek lehen mailako gatazka ekologiko eta sozialak eragin ditu. Erakunde ofizial, unibertsitate eta entitate askotatik datozen ikerketa zientifikoek agerian utzi dute badirela *fracking*aren erabilerari lotutako arazo ugari. Lurzoruaren, uraren eta bestelako nahitaezko elementuen neurrigabeko erabileratik hasita, airearen zein gainazaleko uren kutsadurara, *fracking*ak eragindako kalteen soka luzea da, eta kalte horiek gizakien zein animalien osasunean arazo ugari sortzen dituzte. Era berean, nabarmentzekoak dira, kutsadura akustikoa, ibilgailu astunen trafikoen areagotzeari lotutako arazoak eta aktibitate sismikoaren agerpena, besteak beste.

Haustura hidraulikoa garatzen ari den eremuan bertan eta inguruetan izaten diren arazo horiei, berotze globala gehitu behar zaie. *Fracking*ak eragin bikoitza dauka arazo horretan. Alde batetik, erazketa-mentean metano-ihes eta aireztatze ugari gertatzen

extracción de carbón a través de la remoción de cimas de montañas, la extracción de petróleo de arenas bituminosas, o la extracción de gas y petróleo a través de técnicas como la fractura hidráulica (*fracking*).

Estas técnicas y operaciones, tomadas en su conjunto, tienen unas características comunes:

- El input energético que requieren es mucho mayor que el de las técnicas convencionales, por lo que la rentabilidad energética resulta sensiblemente inferior.
- Requieren de una mayor utilización de recursos naturales en las operaciones extractivas.
- Son técnicas que precisan de una ocupación y utilización de suelo mucho mayor.
- Y, sobre todo, tienen en común que son técnicas mucho más agresivas con el medio ambiente.

El resultado de la aplicación de estas técnicas es la generación de gran cantidad de conflictos socioambientales allá donde se implementan.

El caso del *fracking* es paradigmático. La fracturación hidráulica moderna consiste en la inyección de grandes cantidades de fluido a alta presión en el subsuelo, con el propósito de crear una permeabilidad artificial, que libere y permita el acceso a la superficie a hidrocarburos que se hallaban atrapados y diseminados en grandes extensiones de vetas de rocas profundas. Desarrollado tecnológicamente en los años 80 y 90 del siglo pasado, ha propiciado la extracción de gas natural y petróleo no convencional en EEUU y Canadá. No obstante, el gran desarrollo del *fracking* en el primer decenio del siglo XXI ha provocado problemas socioambientales de primer orden. Estudios científicos provenientes de diferentes organismos oficiales, universidades y entidades independientes han demostrado la existencia de importantes problemas asociados a la utilización del *fracking*. Problemas que van desde la alta utilización de suelo, agua y otros elementos esenciales, hasta problemas por contaminación tanto de las aguas superficiales y subterráneas como del aire, provocando diversos problemas en la salud humana y animal. A esto se deben añadir otros problemas como la contaminación acústica, problemas derivados del intenso flujo de vehículos pesados o la aparición de actividad sísmica, entre otros.

A estos problemas, que se producen en el entorno inmediato en el que se desarrolla la fractura hidráulica, debemos añadir el problema del calentamiento global. El *fracking* incide doblemente en esta problemática. Por un lado, provoca grandes emisiones





dira eta, beste alde batetik, erauzitako gas naturalak CO₂a askatzen du erregai bezala erabiltzen denean. Bai metanoa eta bai CO₂a berotegi-efektuko gasak dira.

Estrategia energetiko gisa *fracking*aren alde apustu egitea akats nabarmena da. Izan ere, bizi dugun garai honetan premiazkoa da daukagun baliabide, bitarteko eta indar oro karbono-arrasto baxuko eredu energetiko baterako trantsizio azkarra egitera bideratzea.

Aurretiaz adierazitako horrek guztiak erakusten digu baliabide ez-konbentzionalen alde, orokorrean, eta, bereziki, *fracking*aren alde egin nahi den apustu horrek mehatxu larria adierazten duela ingurumenarentzat eta gure inguruko beste hainbat lekutan egin duten bezala erantzun irmoa eman behar diogula. Herri-ekimen legegile honen bitartez bultzatu nahi den legearen xedea *fracking*ak berekin dituen arrisku larri horiek gure lurraldean errealitate bihurtu ez daitezen beharrezkoak diren neurriak jartzea da. Europar Batasunean, ingurumen alorrean badira zenbait oinarritzko printzipio, Europar Batasunaren Funtzionamenduari Buruzko Tratatuan jasota daudenak (EBFT), haien artean zuhurtasun-printzipioa eta prebentzioaren printzipioa, eskuartean dugun lege hau bermatzen dutenak, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumenaren babesarako neurri osagarri batzuk ere ezarri nahi dituen.

Prebentzioaren printzipioak ingurumena babesteko neurriak hartzea ahalbidetzen du, are kaltea bera eragin baino lehenago, betiere zientifikoki frogatzen baldin bada ingurumena hondatzeko arriskua egon badagoela.

Bestalde, zuhurtasun-printzipioak aurreko printzipioa sendotzen du, ingurumen-arrisku posibleen murrizketaren mesedetan ekitea ahalbidetuz, ziurtasun zientifikorik egon gabe ere. Modu horretan, EBFTk eskuragarri dauden datu zientifiko eta teknikoak kontuan hartzea exijitzen badu ere (191.3 artikulua), bere jarduketak ez dio zertan oinarri zientifiko dudagabea heldu. Izan ere, 2000ko otsailaren 2ko zuhurtasun-printzipioaren erabileraren inguruko komunikazioan Europako Batzordeak baieztatu zuen printzipio horrek ingurumenarentzako potentzialki kaltegarriak diren arriskuak hauteman diren kasuei egiten diela erreferentzia; arrisku horiek fenomeno, prozesu edo produktu baten ondorioak izan, baina hori ziurtasun osoz baieztatzeko informazio zientifikoa eskasa, urria edota zalantzarikoa denean, halako eran non ez daitekeen nahikoa ziurtasunez ebatzi kasuan kasuko arriskua.

Printzipio horren garrantzia 2000ko abenduaren 7tik 9rako Nizako Kontseilu Europarrean nabar-

de metano a través de fugas y venteos en el momento de su extracción y, por otra parte, el gas natural que se extrae emite CO₂ cuando es utilizado como combustible, siendo ambos gases de efecto invernadero.

El *fracking*, como apuesta energética estratégica, supone una equivocación evidente, ya que estamos en un momento en el que es urgente destinar los medios, esfuerzos y recursos existentes a realizar una rápida transición hacia un modelo energético con baja huella de carbono.

Todo lo anteriormente expuesto nos muestra que la apuesta por los recursos no convencionales, en general, y por el *fracking* en particular, supone una amenaza indudable para el medio ambiente ante la que debemos actuar como ya lo han hecho en otros lugares de nuestro entorno. La ley que se pretende impulsar a través de esa iniciativa legislativa popular quiere establecer las medidas necesarias para que los graves riesgos que entraña la técnica del *fracking* no sean una realidad en nuestro entorno. Existen principios fundamentales de la acción comunitaria europea en materia de medio ambiente recogidos en el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea (TFUE), como son el principio de acción preventiva y el principio de cautela, que avalan una ley como la presente, que pretende establecer medidas adicionales de protección medioambiental en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El principio de acción preventiva implica la posibilidad de adoptar medidas de protección del medio ambiente aun antes de que se haya producido la lesión del mismo, siempre que se constate científicamente la existencia de un peligro real de deterioro ambiental.

Por su parte, el principio de cautela refuerza el principio de acción preventiva, al permitir la actuación en aras de la reducción de los posibles riesgos ambientales, sin necesidad de que exista una plena certeza científica. De manera que, aunque el TFUE exige tener en cuenta los datos científicos y técnicos disponibles (artículo 191.3), su actuación no precisa estar respaldada por unas bases científicas incontrovertidas. De hecho, en su comunicación sobre la utilización del principio de cautela, de 2 de febrero de 2000, la Comisión Europea ha afirmado que este principio se refiere a casos en los que se han identificado riesgos potencialmente peligrosos para el medio ambiente, derivados de un fenómeno, producto o proceso, pero la información científica es insuficiente, incierta o no concluyente, de forma que no puede determinarse con suficiente certeza el riesgo en cuestión.

La importancia de este principio fue subrayada en el Consejo Europeo de Niza del 7 al 9 de diciem-





mendu zen, non zuhurtasun-printzipioren inguruko ebazpen bat onartu baitzen. Ebazpen horretan, ordirako Europako Batzordeak iragarriak zituen printzipioarentzako orientabide orokorrak finkatu zituzten. Horretaz gain, erabaki judizialak ere badaude, hala nola Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (C-127/02) epaia, 2004ko irailaren 7koa.

Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen-babeserako neurri osagarriak ezartzea helburu duen lege hau emateko, euskal Administrazioak bere eskumenen esparruan dihardu, Autonomia Estatutuan jasotakoaren arabera.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua

Lege honen xedea da hidrokarburoak aztertu, ikertu eta ustiatzeko ingurumena babesteko neurri osagarri batzuk ezartzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen esparruan.

2. artikulua. Kontzeptuak

1. Baliabide ez-konbentzionalak dira:
 - Hidrokarburo likidoak edo gaseosoak, 1 miliardarytik beherako iragazkortasuna izanik, harri aman harrapatuta daudenak.
 - Iltatz- edo harrikatz-zainetan harrapatuta dauden hidrokarburo gaseosoak, giza-kien jardunik gabe aterako ez liratekeenak.
 - Itsasoan lurperatuta dauden metano-hidratoak.
2. Haustura hidraulikoa edo *frackinga* hidrokarburoak erauzteko teknika bat da. Teknika horren bidez, hidraulikoki hausten da arroka-geruza; horretarako, marruskadura txikiko haustura-jariakin bat sartzen da, presio altuan. Jariakin horri hainbat agente kimiko gehitzen zaizkio.

3. artikulua

Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko 28. artikulua aldatzen da, 7. puntu berri bat sortuz, hurrengo testuarekin:

Lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta dauden lur-eremuetan, hidrokarburoen aprobetxamenduaren kasuan, ez dago baimenduta haustura hidraulikoaren teknologia, inguruko ezaugarri geologikoei, ingurumenari, paisaiari edo baldintza sozioekonomikoei kalte egin badiezaieke, edota Eusko Jaurlaritzaren beste es-

bre de 2000, donde se adoptó una resolución sobre el principio de cautela que confirma en líneas generales las orientaciones que respecto a este principio había señalado la Comisión Europea, existiendo además pronunciamientos judiciales, como la sentencia del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas (C-127/02) de 7 de septiembre de 2004.

Para dictar esta ley que pretende establecer medidas adicionales de protección medioambiental en la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Administración vasca actúa dentro del ámbito de sus competencias recogidas en el Estatuto de Autonomía.

Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación

Esta ley tiene por objeto, en el marco de las competencias de la Comunidad Autónoma del País Vasco, establecer medidas adicionales de protección medioambiental para la exploración, investigación y explotación de hidrocarburos.

Artículo 2. Conceptos

1. Se consideran recursos no convencionales:
 - Los hidrocarburos líquidos o gaseosos que estuvieran atrapados en la roca madre y cuya permeabilidad sea inferior a 1 miliardary.
 - Los hidrocarburos gaseosos que estuvieran atrapados en las vetas de carbón o de hulla y que no saldrían sin la acción humana.
 - Los hidratos de metano enterrados en el mar.
2. Se considera fractura hidráulica o *fracking* aquella técnica de extracción de hidrocarburos a base de fracturar hidráulicamente un estrato rocoso, introduciendo, a gran presión, un fluido de fractura de baja fricción al que se añaden una serie de agentes químicos.

Artículo 3

Se modifica el artículo 28 de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, creando un nuevo punto 7 con el siguiente texto:

En terrenos clasificados como suelo no urbanizable, en el caso de aprovechamiento de hidrocarburos, no está permitida la tecnología de la fractura hidráulica, cuando pueda tener efectos negativos sobre las características geológicas, ambientales, paisajísticas o socioeconómicas de la zona, o en relación con





kumen-eremu batzuei dagokienez, lurralde-antolaketaren, hirigintza-antolaketaren edo/eta ingurumen-antolaketaren bitartekoetan jasota dagoenaren arabera.

4. artikulua

Orokorrean, hidrokarburoak ustiatzeko haustura hidraulikoa jasotzen duen edozein plan, programa edo estrategia sektorialek, bereziki euskal energia-estrategiak, ingurumen arloko ebaluazio estrategikoa eduki beharko du.

5. artikulua

Uraren 1/2006 Legeko 29.1 artikuluari, paragrafo berri bat gehitzen zaio.

"Ildo horretatik, haustura hidraulikoaren teknika erabiltzea ere debekatuta geratzen da hidrokarburoen ustiapenerako, EAEko akuiferoen kutsadurarekiko zaurgarritasunaren-mapan zaurgarritasun-arrisku ertain, handi edo oso handi gisa sailkatuta dauden guznetan".

6. artikulua

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari egintzariek eta funtzionario publikoek lege honetan xedatutakoa errespetatu eta betetzen dela bermatuko dute, eta, bakoitzak bere eskumenen barruan, neurri egokiak hartuko dituzte aipatutako lege horretan ezarritakoa urratuta egiten diren jarduerak geldiarazteko, bai eta aldatutako egoera jatorrizko egoerara lehenagoratzeko ere.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa

Lege honen 3. artikuluan ezarritako aurreikuspena, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean hidrokarburoen esplorazio, ikerketa eta ustiapenerako jada emandako edo tramitazioan dauden baimenei aplikatuko zaie, bai eta lege hau indarrean jarritik denetik aurrera aurkezten diren eskaerei ere.

Bigarrena

Lege honen 4. artikuluan aipatzen den derrigor-tasun hori, lege hau indarrean jarri ondoren tramitazioa hasten duten planei aplikatzeaz gain, 2006ko uztailearen 21a ondoren behin betiko onarpena eman zaien plan, programa eta indarrean dauden estrategiei ere aplikatuko zaie.

Hidrokarburo ez-konbentzionalak ustiatzeko helburua duten zulaketa edo esplorazio-zundaketak egi-

otros ámbitos competenciales de la Comunidad Autónoma vasca, en función de lo que establezcan los instrumentos de ordenación territorial, urbanística y/o ambiental.

Artículo 4

En general, cualquier plan, programa o estrategia sectorial que contemple la fractura hidráulica para la explotación de hidrocarburos, especialmente la estrategia energética vasca, deberá contar con una evaluación medioambiental estratégica.

Artículo 5

Se añade un nuevo párrafo al artículo 29.1 de la Ley 1/2006, de Aguas.

"En este sentido, queda prohibido el uso de la técnica de la fractura hidráulica para la explotación de hidrocarburos en aquellos espacios clasificados como de riesgo de vulnerabilidad media, alta o muy alta en el mapa de vulnerabilidad a la contaminación de los acuíferos de la CAV".

Artículo 6

Las autoridades y funcionarios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco velarán por el respeto y cumplimiento de lo dispuesto en la presente ley y adoptarán, dentro de sus respectivas competencias, las medidas oportunas para la paralización de las actividades que se realizaran contraviniendo lo dispuesto en ella, así como la reposición de la situación alterada a su estado originario.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera

La previsión establecida en el artículo 3 de la presente ley se aplicará a los permisos ya concedidos o en tramitación para la exploración, investigación y explotación de hidrocarburos en el territorio de la Comunidad Autónoma vasca, así como a las solicitudes que se formulen a partir de su entrada en vigor.

Segunda

La obligatoriedad a que se refiere el artículo 4 de la presente ley, además de aplicarse a los planes que se tramiten con posterioridad a la entrada en vigor de la presente ley, se aplicará asimismo a los planes, programas y estrategias en vigor aprobados definitivamente con posterioridad al 21 de julio de 2006.

No se concederán permisos para realizar perforaciones o sondeos exploratorios con objeto de explo-





teko baimenik ez da emango, harik eta aurreko paragrafoan aipatzen den ingurumen arloko ebaluazio estrategikoaren tramitazio osoa bukatzen ez den arte.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetuta geratzen dira lege honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheargoko arau-xedapenak edo legearen edukiarekin batezinez direnak.

Azken xedapena

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko ekainaren 17a

Javier Carro Iglesias
(EA-NV)

Natalia Rojo Solana
(SV-ES)

Gorka Maneiro Labayen
(Mistoa-UPyD / Mixto-UPyD)

tar hidrocarburos no convencionales, en tanto no se concluya la tramitación completa de la evaluación medioambiental estratégica a que se refiere el párrafo anterior.

Disposición derogatoria

Las disposiciones normativas de igual o inferior rango que se opongan a la presente ley o sean incompatibles con su contenido quedan derogadas.

Disposición final

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, 17 de junio de 2015

Daniel Maeztu Perez
(EH Bildu)

María del Carmen López de Ocariz López de Muñain
(PV-ETP)

